

ttipi-ttapa

1991eko Urtarrilak 24

54. zenbakia

dohain banatzen da

75 urte dira
Bidasoako Trena
abiatu zela



CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07

BERA

ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

*Euskara
Ikastaroak*

Ikastari



Urte berria... aukera berria

OTSAILA - MAIATZA

- **Astean 8 ordu:** – Euskalduntze
– Alfabetatze
– EGA
- **Larunbatetan 4 ordu:** – EGA
- **Ortziraletan:** – sakontzeko talde berezia

BORTZIRIAK

Tfnoa: 63 77 96

MALERREKA

Tfnoa: 45 15 55

LEITZA

Tfnoa: 61 07 76

Matrikula epea zabalik urtarrilaren 31a arte

1 er n - n

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/21 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 22 ERREPORTAIA:** "Hirurogeitamabortz urte dira abiatu zela Bidasoako Trena"
Roman Harribilaga
-
- 24 ELKARRIZKETA:** "Bengoetxea III.a, Ezkurrako semea Leitza bizi dena"
Antton Erkizia
-
- 26 KIROLAK:**
Mattari eta Beti Gazte Elkartea
-
- 29 OSASUNA:** "Zergatik edaten dute gazteek?"
Nafarroako Osasun Mentaleko Taldea
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-
- 31 DENBORAPASA**
Enbido
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 3.900 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karnele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo	452367 / 580235
Doneztebe	450300
Lesaka	637428 / 637336
Leitza	510248 / 510573
KONTSULTAK	
Arizkun	587039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	450183
Sunbilla	450283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera	630929 / 630036
Etxalar	635105
Urdazubi	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614444
Nafarroako ospitalea	102100
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	262700
Gurutze Gorria	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	450242/450342
DYA	
Lesaka (larrialdiak)	(943) 464622
Elizondo (larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Lesaka	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leitzarain	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630104
ABERIAK:	
Iberduero	450335/450336

Deialdiak

► **Lesakan**, urtarri-laren 24ean, arratsaldeko 6etan Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

► **Lesakan**, otsailaren 1ean, Herriko Etxean, arratsaldeko 5etan, Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

► **Beran**, otsailaren 1ean, Jamotenean, arratsaldeko 8etan, Kaldereroen konpartsarako saioa.

► **Beran**, otsailaren 2an, *Kalderero Eguna*.

Irteera 7etan Illekueta auzotik. 9.30etan afaria: Txartela 1.000 pztatan salgai Errekalde, Zizka, Pizzio eta Matxiarenan 28a baino lehen.

► **Igantzin**, otsailaren 4ean, arratsaldeko 7etan, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

Botikak

• **Urtarrilaren 26-27an**, Aranatz, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

• **Otsailaren 2-3an**, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

Antzerkia

► **Erratzun**, Otsailaren 6an, Pilotalekuan, arratsaldeko 4etan *"Mimo Clows Collins"* taldeak eskeinia.

Lehiaketak

► *ttipi-ttapak* antolaturik:

I. NARRAZIO
LABUR, KOMIKI
ETA ARGAZKI
LEHIAKETA

Lanak aurkezteko azken eguna, urtarriaren 30a. Informazioa: 631188 tfnoan.

Bota bertsoa



Mariano Izeta

Gaia: Bidasoako Trena
Neurria: Zortziko ttikia

Jendeak maite zuen
Bidasoko Trena
bidaia egiteko
gauzik hoberena
mantso baino seguru
herrietan barrena
hori desegin zelaik
hartu nuen pena.

Bidasoako Trena
daukat nik gogoan
beti ibiltzen bait zen
erreka ondoan
denek maitatzen zuten
Baztan-Bidasoan
bidaia egiteko
hobeik ez zegoan.

AGENDA

Ikastaroak

Lesakan:

EXPRESIO
TAILERRA

Gazte eta helduentzat
Iraupena: 4 hilabete
(Otsaila-Maiatza).

Lekua: Lesakako Tanti-
rumairu Ikastolaren
gimnasioan.

**Izenematea eta infor-
mazioa:** GAIA Belar
dendan.

Topaketa: Urtarrilaren
28an Tantiroomairu Ikas-
tolan.

Arantzán,
Bortzirietako Bertso
Eskolak antolatutik:
GAZTEEN BERTSO
IKASTAROA

Noiz: Ortziraleror, arra-
tseko 8,30etatik hasita.

Non: Arantzako Ekaitza
Elkartean.

ANIMO ! Edozeinek
parte har dezake!
Agertu bertzerik ez
duzue egin behar.

Gastronomia

BARAZKI MENESTRA

Osagaiak: Azelgak, le-
kak, pella edo azaloreak,
babak, alkatxofak, ilarrak
(gisanteak), tipula, patata
ttiki batzuk, urdaiazpiko
puxka batzuk, garduak eta
azenario batzuk.

Garbitu, puskatu eta
egosi banan-bana baraz-



Mertxek emana, GALARZA
Jatexekoa, BERA.

ki guztiak. Kazuela batean
tipula xehetua jarri eta utzi

egiten. Gero patatak bota,
urdaiazpikoa zartagian
pasatu eta kazuelara bota

. Ondoren, alkatxofak.
Garduak zartagitik pixkat
pasatu eta gero banan-
bana barazki guztiak ka-
zuelara pasa, egosi eta
zerbitzerakoan azenario
eta pella edo azaloreare-
kin hornitu.

Baserriko feria

ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 ki-
lokoa): 4.700pzta. **Zerri**
gizena (95-100): 130 pzta./
kilo bizirik. **Urdamak:** 70-
75 pzta./kilo bizirik.

BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....580-590
1.koa.....560
2.koa.....500

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra.....590-620
1.koa.....580
2.koa.....520
Oharra: Prezio hauek 300-
340 Kg. kanalean dauzka-
ten idixko eta 200-250 Kg.
dituzten urruxentzako.

Baztango aretzea: 650
pzta/kg. Kanal.

•Behi zaharrak:
Behi nabar gizena: 360-
370Pzta./Kg. Kanal. Behi

gorri ona: 420 Pzta /Kg.
Kanal.

•Aretze ttikiak
(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 20.000
eta Idixkoak 27.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 33.000
eta idixkoak 37.000 Pzta.

BILDOSKIA

•12 kilokoak 390-400
pzta/bizirik.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



SANTAMARIA
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

AGENDA

Irratia

Xorroxin Irratia

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiratzuz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13,25: Oharrak, etab.
- 13,30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.

Zinema

Corazón Salvaje

David Lynch
USA 1990

Inongo dudarik gabe, gure artean laister estrenatuko den filma honek, aldeko eta aurkako eritziak izanen ditu.

Cannes-en lehen saria irabazi zuen filma hau, maitasuna eta gorrotoan oinarrituta dago. Bikote baten maitasun ihesaldi madarikatua (batzutan "Bonnie and Clyde" oroi-



tarazten gaitu) eta ihesaldian topatzen dituzte gaurko gizarteak haibat gorrotatzen dituen pertsonaiak: sexo basatia, erahilketak,

intzestoa, abortoa, drogak, eritasuna, mafia...

Zabaltzen ari den puritanismoaren aurkako kolpea izan daiteke filma hau.

David Lynch zuzendaria berriro harritu gaitu bere lan berezi eta onarekin. Iparramerika osoa eta Europa erdia eskandalizatu ondoren. "El hombre elefante", "Dune", "Blue Velvet", "Twin Peaks" izan dira bere lanak.

GOLEM - IRUÑA

Musika



► **Paseando a Miss Daisy**
USA - 1989, Bruce Beresford.

4 oskar lortu zituen filma honek: gidoia, emakume zaharraren lana, filma hoberena eta makilaiarena.

Emakume alargun aberats batek, bizia ezinezkoa egiten die beretzat lan egiten duten beltzei. Batekin, amastade harremana konpontzen hasiko da 25 urte berekin lan egin ondoren.

► **Mira quien habla**
USA- 1990, Amy Heckerling.
Haurdun dagoen emakumea taxi batean erditzen hasi eta denbora berean taxistarekin ligatu hospitaleko bidean. Umea



jaio bezain laister hizketan hasten da denekin eta ez nolanahi. Situazio hauek nahikoak izan dira bideoa hagitz solizitatua izateko.

BIDEO BELAI - LESAKA
BIDEO CLUB- BERA



AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT

Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑA. Tfnoa: 22 14 40

ETXEGARAI

BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

HERRIKO OSTATUA


Tfnoa.: 59 43 25

ITUREN

Leitzaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua martxan



Euskara Ikastaroetarako matrikula berria zabalik: Otsailatik maiatzara luzatuko den ikastaro hau, Arantza, Bera, Doneztebe, Etxalar, Igantzi, Leitza eta Lesakan dagoeneko martxan dauden taldetan burutu ahal izanen da eta talde berriak sortuko balitz ere, atendituko litzateke.



Baztanen, San Anton errifan, 1.114 zenbakiari egokitu zitzaion behia; zerria 4.406; bildotsak 11.560 eta urdaiazpikoa 18.653 zenbakiari. Guzira, 21.000 zenbaki saldu ziren. Hori da arrakasta!

Leitza, Areso, Goizue-
ta eta Aranoko Udalek era-
tutako Oinarrizko Gizarte
Zerbitzu hau, Virginia
Eraso -Langile Sozialak-
eta Zuriñe Odriozola -
Administrari Laguntzai-
leak- osatzen dute.

Zerbitzu honetatik es-
kualde honetan izan dai-
tezken behar sozialak bi-
deratuko dira, egokiak di-
reren erantzunak emanez, bai
pertsonalki, bai dagozkien
erakundeetara zuzenduz.
Lehenengo urte honetan,
gure helburu nagusia haxe
izanen da: zonalde hone-
tako biztanle guztiak zu-
zenduta dagoen argibide,
balioztapen eta orientazio
zerbitzua eskeintzea. Ai-
patu behar ere, Lan Sozia-
laren arloan aritzen diren
beste profesionalekin
elkarlanean aritzea ere hel-
burutzat dugula.

Goian aipatutako Uda-
lak dira Zerbitzu honen
bultzatzaileak eta Nafa-

rrako Gobernuak suben-
tzionaturik dago.

Lanean hasi ginenetik,
40ren bat pertsona hurbil-
du zaizkigu bulegora. Ka-
suok aztertu ondoren, on-
dorio haxe ater daiteke:
kontsulten ia %30a elba-
rrien ingurukoa da, %15a
"Etxean laguntzeko Zerbi-
tzua" deritzenaren eskaki-
zunak izan dira, %18ak
laguntza ekonomikoak es-
katu dute (Oinarrizko
Errenta, 65 urtez go-
rakoentzako laguntzak) eta
gainontzeko kasuak pro-
blematika zabal baten
adierazgarriak dira (orto-
pedia eskariak, Erresiden-
tztietan sartzeko eskariak,
e.a.). (...)

Zuk ere arazorik baldin
baduzu, zatoz guregana,
irtenbideren bat aurkitzen
saiauko gara edo bestela,
dei ezazu 510573 Tfñora.
Langile Sozialaz galdetuz.

VIRGINIA ERASO
Leitzaldeko Langile Soziala




Fco. Martín Aiestaran
BURDIN-LAN ARTISTIKOA
450235 - ELGORRIAGA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

IRUBIDE
ostatua
erretegia
Tfñoa: 637127 LESAKA

TXOKO
ERRETEGIA

Bazkari, afari
eta gosariak

ITUREN
Tfñoa.: 45 04 91

SEXU DISKRIMINAZIOA?

Makina bat lan eta urte kosta zaigu irakasle, guraso, gizaritari azken finen, eskoletan neska mutilak gela beretan ikastea, eskulan mota guztietan denak aritzea (sulkalaritzan, josten, marketerian, e.a.), soinketa eta kirol saioak elkarrekin lantzea.

Orain, 1990-91. ikasturtean pausobat atzerantz ematen dugu: Asteazken arratsalde, Bera-ko OHO-ko hiru eskoletako (Ricardo Baroja, Sagrado Cora-

zón eta Ikastola Labiaga) Guraso Elkarrekin antolatzen dituzten kirol batzuetan, neskak bakarrik edo mutilak bakarrik ari behar dutela diote, haur batzuk bere gustoko kirolean JOSTATU, ez jokatu, gabe gelditu behar dutenez, beren sexu mota arrazoi bakarra delarik.

Ricardo Barojako Eskola Batzordeak bertako Guraso Elkarrekin arazoa konpontzeko eskatzen, baina badiurdi hiru elkarrekin biltzen direnean ez dutela horrelako arazorik ikusten.

Noiz arte jasan beharko dute gure hurrek, egoera atzerakoi eta diskriminatzaile hau?

Ez dut polemikarik bilatzen, baina ama eta irakasle naizenez, egoera honek minegiten dit. Horrengatik nere kexa publikoki agertzen dut eta dagokizueni, erreflexio bat eskatzen dizuet.

Beran, 1991ko Urtarrilaren



M.C.L.
72.613.321

BATXEAK, EZ ESKERRIK ASKO!

Aspalditik kezkatua nago, nere osasuna gero eta okerrago bait dago. Eta zergatik ba? Lesakako batheen arazoa...

Hilabeteak dira jadanik nere gurpilak zuloetan sartzerakoan astindu ederak hartzen ditudala. Eta jendeak nola begiratzen didan, euri

pixkat egindakoan, nahi gabe zuloa zarpatu eta norbait bustitzen dudanean. Nik al dut kulpaa?

Agintariak hori ditugu, autobidea eta bertze behar dugula erranez baina, ez al da herritik hasteko ordua?



Lesakako
Seisizientos - a

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06

BERA



S. Semper

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, Agerra Industrialdean

Errekalde ostatura

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630529 - **BERA**

J. M. ANDUEZA

Elektrizitate instalazioak

Bidasoa 77, Tfnoa: 63 08 54

BERA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14

ETXALAR



SAROB okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**



EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92

BERA

“XIX. Bera” ipuin lehiaketaren sariak banatu ziren Jamotenean



“XIX. Bera” lehiaketara, guztira 200 ipuin aurkeztu ziren

ROMAN HARRIBILAGA

Urtarrilaren 13an izan ziren banatuak Gure Txokoa Elkarteko Kultura Sailak antolatutako “XIX. Bera” ipuin lehiaketaren sariak. Honetara, 200 ipuin aurkeztu ziren. Bertzalde, “V. Gure Txokoa” lehiaketara lanik aurkeztu izan ez denez gero, hutsik geratu da aurtien.

SARITUTAKO IPUINAK

Epaimahaiaren eritzia-aren arabera, “XIX. Bera” lehiaketaren maila bakoitzean hauek dira ipuinen izenburuak eta beren egileak: 9 urteko adinera arteko A mailan lehenengo saria “Bi xaguak” izeneko lanarentzat izan da, Maria Jesus Perugorria Montiel-

ek idatzia (Labiaga ikastola); aipamen berezia “Goma hegalaria” lanari eman zaio, Ekhine Larralde Lertxurdi-rena, (Rikardo Baroja Eskola). Era berean, 10 eta 11 urtekoentzat B mailan, “Bidaia kohetea” ipuinarentzat izan da lehengo saria, Mirian Erkizia Irazoki-rena, (Labiaga). Maila honetan bi aipamen berezi eman dira “Alkebehereko morroia” ipuina idatzi duen Joseba Aranibar Almandotz-entzat (Labiaga) eta “Alkaterearen eguna” ipuina idatzi duen Santi Susperregti Goñi-entzat, (Labiaga).

Baita ere, 12 urtetik 16etarako D mailan lehenengo saria “Kanpoko ohi-tura ezezagunak” lanarentzat izan da, Jon Abril



Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

Olaetxea-rena (Lekarotzko ikastetxea); bigarren saria, “Nere akatsa” lanarentzat izan da, Xabier Iturria Rozas-ena, (Labiaga). Aipamen berezia “Heriotza” lanari eman zaio, Mertxe Irazoki Agirreren, (Labiaga).

“Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola” zabalik

Eskola eta koartela bezala erabilia izan den XVIII. etxearen berregokitzapen lanak gauzatu ondoren, bertan jarri izan den “Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola” urtarrilaren 14az geroztik zabalik da, inaugurazio ofiziala urtarrilaren 26rako iragarri arren udalak. Musika tresna gaiak emateko 6

ikasgela eta 2 gehiago solfeorako izanen ditu lehen solairuan; bigarren, musika liburutegia, zuzendariaren langela, idazkari-tza eta komunak. Halabaina, ikasgelak zenbakitu egin beharrean, musika-gintzan nabarmendu diren Berako aintzinako musikarien izenak ezarriko dira.

Kaxerna Udalerritari itzuli Iruñeako Gobernuak

1956an “FET y de las JONS” delako Sección Femeninak hain maltzurki eskuratutako eremua eta makina bat aldiz eskatua, herriarena izanen da, jabetasun aldaketa lanak formaltzen direnean Notaritzan.

LESAKA

Irain Dantza taldeak iazko balantzea positibotzat hartzen du

AITOR AROZENA

Irain Eskolako Guraso Elkartearen ardurapean dagoen Irain Dantza Taldeak, orokorrean oso positibotzat hartzen du iragan ikasturtean egindako aktibitateen multzoa, euren ustez "arrakasta, dantza taldearen partaideek burututako lan bikainaren emaitza izanik neurri haundi batean".

Urtean zehar garatutako ekintza guztien artean, bere garrantzi, esfortzu eta zailtasunarengatik, joan den Urriaren 21ean ospatutako III. Dantzari Txiki Eguna-ren antolatze lana azpimarratzen dute, bertan parte hartu bait zuten Hegoaldeko herrialde guztietako dantza taldeak.

Beste aktibitate ugariaren artean, Irain Dantza Taldeak, Otxagabia eta Bergarako Dantzari Txiki Eguna, Eibar, Oñati eta Durangoko Haurren Eguna eta Oretako Dantzari egunean parte hartu du.

Hauetaz aparte, Juanjo



Irain Dantza Taldea

Salbador pilotari lesakarrari egindako Donostiako eta Lesakako omenaldietan, Batzokiaren inaugurazioan eta zenbait herrietako bestetan parte hartu dute edo parte hartzeko aukera eman diote, Irungo Euskal Jiran eta Zarautzeko Euskal Jailetan dantzatzeaz gain.

Gauy egun, lau eta hamazazpi urte arteko 83 dantzari osatutako taldeak errepertorio guztia berritzea lortu zuen joan den urtean eta etorkizunari dagokionez, material berria jasotzea, oraingo erreper-

torioa zabaltzea eta bertze euskal dantza taldeekin harremanak estutzea izanen lirateke berehalako proiektuak.

Eroski itxiko dute

Urtarrilaren 31an itxiko omen dute Varez poligonoan kokatua dagoen Eroski kooperatibaren denda. Hala ere, zenbait berrikuntza egin eta berriro irekitzeko asmoa dago, oraingoan Erosle izenarekin. Denda berri hau txikiagoa izanen da, baina orain arte lanean zeuden gehienak bertan jarraituko omen dute.

ttipi-flash

• **Amnistia Internazional**-ek igorritako idatzi bat onartu zuen Udalak, Europako Elkarteko legedi berrian babes politikoaren eskubideari emanen zaion tratamenduaz kezka adieraziz.

• **Lapurretak** izan ditugu berriro. Oraingoan Berrotaran eta Goizueta dendetan eta Transportes del Bidasoan sartu ziren.

• **Herrian** omen daukagu Euskalerriko urarik merkeena. Horrela dio behinipein Eroski-ren aldizkariak bere azken alean, metro kubikoko 8,5 pezeta besterik ez bait dugu ordaintzen.

• **San Anton** egun arrakastatsua izan genuen aurtengoan ere. Urtero bezalaxe, meza, erromeria, besta eta jendetza ederra auzoan joan den igandean.

• **Osasundegirako** bi-deak, iluminazioak eta seinalizazioak duten egoera txarra ikusirik, azterketa bat egitea erabaki du Udalak.

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA

ATERPE
jatexea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA




Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Zabaletako mendia erosteko aukera?

PELLO APEZETXEA

Olaldean, beheko zentral ondotik hasita kokatua dagoen mendi honek 340 hektareatako luze-zabalea du. Izenaren arabera, lehengo denboretan Lesakako Zabaleta jauntxoak izan zitekeen bere jabea, orain Otazu-tar familiaren eskuetan dagoelarik. Duela berrogeiren bat urte, Etxalar herriak bereganatzeko aukera izan omen zuen, baina ordaindu beharra haundi samarra iduritu nonbait, eta ez zuten erostea erabaki orduko herri gizonak. Plantaketak burutzeko Papelerari eta Nafarroako Gobernuari utzia dauka Otazuk mendia, kontratua laister buka-



tzekotan dagoela, eta berritzeko asmorik gabe Gobernuaren aldetik. Ez litzateke, agian, harritzekoa gertatuko mendia saldu nahi izatea jabeak, eta Herriak badu zer erranik, bertako ur eta bazka eskubi-deak dituelako.

Hala diote gaia begira-

tu duten legegizonek. Edozeinerostunek baldintza eta zama hori bere gain hartu beharko bailuke, ez litzateke Udalarentzat hain momentu desegokia izan, behar bada, bera erostun bihurtzen ahal den begiratzeko bederen.

Hazienda kopurua

Deklarazioek diotenez, 68 mia dira Etxalarren, esne-behiak 363 eta haragikoak 35, ardiak 4.047 direlarik eta zerramak 374. Xehekiago begiratu, esne-behiak 77 etxetan banatuak daude, bortzetan 10 behi edo gehiago. Gainerako 72 etxeetako bakoitzak, banaz bertze, 3,8 behi ditu. Ardiak 58 etxetan daude banaturik, 9 etxetan 100 edo gehiagoko artalde, bertzetan berriz banaz bertzeko 55ekoa. Zerramak, 66 etxeren artean dauzkate, beraietako hamaikak 10 zerrama edo gehiago eta gainerako 55 etxeek 3,3 banaz bertze. Horrez gain, badira 31 zaldi, 21 mando, 35 behor eta 4 asto.

IGANTZI

Iñauteriak Otsailaren 1a eta 2an izanen dira

OSKAR TXOPERENA

Gazteek paratu dituzte dagoeneko aurtengo Iñauterietako Egunak. Otsailaren 1a eta 2an izanen dira eta programa aintzineko urtetakoa izanen da gutti gora behera. Erran digutenez, moztaroen eskiak, emakumeen afaria eta akordeolarien dantzaldiak

izanen dira bestaren mamia.

Egur loteen banaketa

Anyon eta Erroizkerrekan egin behar diren plantazioak direla eta leku hauek garbiak gera daitezten etxeetarako egurra banatzea pentsatu zuen Udalak. Izenematearen epea Azaroan bukatu zen eta

orain markaketa egiten ari dira mendietako zeladoreek. Seguraski aldizkaria zuen eskuetara iritsi orduko eginak izango dira zozketak eta bakoitzak bere eremua izanen du.

Jubilatuaren bilera

Urtarrilaren 16an bilera bat izandu zen Biltokin. Gaia, Jubilatuaren etxea egitea edo ez egitea, eta

egin ez gero nola egin izandu zen. Bilera honetara 15 jubilatutako azaldu ziren eta Udaletik berriz, bi, Martin Legarra apaiza ere bertan izan zelarik. Biltzearen arrazoia planteatu orduko jendeak jarrera hagitik positiboa agertu zuen eta komenigarria ikusi zen me-



(bertze aldean segitzen du)

dikuaren etxea moldatzea. Beraz, Udalak aintzinera eramane du bere lana, aintzinago zehaztuko delarik bere erabilera.

Iaz sortutakoak

Imanol Goienetxe Iturbide, Agurne Maritxalar Salaberri, Ibai Retegi Zamorano, Ane Sainz Matxikote, Saioa Telletxea Zubeldia.

Iaz

ezkondutakoak

Luis M^a Telletxea & M^a Jose Zubeldia. Jose M^a

Yanci & Ana Jose Irigoien. F. J. Bertiz & Mirian Etxarte. Justino Rojo & Corpus Txoperena eta Jesus M^a Matxikote & Rosa M^a Sein.

Iaz hildakoak

Guillermo Legasa Yoldi (9-2-90).

Rafael Iturbide Ordoki (1-3-90).

Jose Larralde Ordoki (5-5-90).

Maria Bergara Urtxegi (13-9-90).



ARANTZA

Mendaurrera lasterka marka jarri Patxi Ordokik

JON LARRETXE

Gaisenberreko bordatik joan etorria ordu bete 16 minutu eta 57 segundutan egin zuen Patxi Ordokik.

Aspalditxo gertatua bada ere, nire eskuetara orain iritsi da eta bere hortan botatzen dut. Hori bai, eskertzekoa da berria ederki hornituta ekarri didatela. Argazkiak, testigoak, siñadurak eta guzti. Beraz, Federazioaren oneritirik ez badu ere, sinagarritasun osoa du, izan ere Pello Soantzene eta Teodoro Martinkordakoak baieztatzen bait dute euren firmekin. Pello Gaisenberko bordan egondu zen eta Teodoro berriz, Mendaurreko ermitan. Honela, ermitara 49 minutu eta 5


segundutan iritsi omen zen, berriro Gaisenberreko bordara haseran aipatutako markarekin itzuli zelarik. Ez dago dudarik arin demonio ibili zela Patxi. Oraindik gehiago kontutan hartzen badugu, goian, ermitan 4' pasatu zituela argazkiak ateratzen (xehetasun hau ere testiguak baieztatua dago) zeren hau kenduz gero, ordu bat 12' eta 57" geldituko bait litzateke marka.

!a nork hobetzen duen!

Badatoz ihauteriak

Datorren 3lean hasiko zaizkigu Arantzan Ihauteriak, Otsailaren 3an, igandea, emanen zaielarik amaiera.

Urtero bezala, ortzeguna eta ortzirala baserriz baserri ibiliko dira mozorru



Patxi Ordoki

(bertze aldean segitzen du)

zuriak akordeoi soinu alaiekin. Gero gaeuz, akordeoia herriko plazan dantza egin nahi duen edonorentzat.

Larunbata izanen da egun fuertea, izan ere gupasa izanen bait dugu, seguruenik Izan taldearekin. Igandean, herri kirolak.

Aizkolariak, trontzalariak eta gero herri bazkaria bertsolariekin, ez nolana-hikoak gainera, alajaina! Lizaso, Murua, Egaña eta

Peñagarikano. Ez dago dudarik bazkalondo aparta izanen dela. Arratsaldean eta Inauteriak bukatzeko akordeoia Herriko Plazan.

DONAMARIA

Lehen "Recopa" futbol partidua

SARA eta NATALIA

Lagun batzuk musean ari ziren bitartean, futbol partidu bat jokatzeko pentsatu zuten: zaharrak gazteen kontra. Eta apostua, galtzaileek irabazleek bazkaria ordaintzea zen.

Jokalariak hain alferrak direnez, futbol zelai txikian jokatu zuten. Mugaireko San Martin eskolan, hain zuzen.

Zaharrak nahiko "pottente" hasi ziren eta berehala Joxe Jabierrek bi gol sartu zituen. Ikustekoa zen honen sasoia! Honen ondorioz, gazteak gogo ge-



hiagorekin jokatzen hasi ziren, guztira sei gol sartuz: Mariñek 4, Patxik 1 eta Laxarok bertzea. Azkenean 6-2 gazteen alde. Ondoren, bazkaltzera joan ziren herriko osta-

tura eta handik, nahiz eta izugarritzko izotza egin, batzuk nahiko epelduak eta bertze batzuk berriz, nahiko berotuak atera ziren, herriaren barna jira bat eginez. Hauen animatzaileak,

Onofre eta Joakin "Arginene" izan ziren.

Urtearen lehendabiziko eztaiak

Maribel Inda eta Lesakako Jose Luis Oronoz (Kaskabeltza) ezkondu ziren urtarrilaren 12an. Egun honetan, andregaiak urteak betetzen zituen. Seguraski, neska honen urtebetetzerik zorionsuena. Egu-raldi txarra egin zuen, arratsaldean kristorenerauntsia bota zuen, behitik goiti, noski, Donamarian horrela egiten baitu (...). Afaria, Almandozko Beolan. Zorionak.

DONEZTEBE

Arau Subsidiarioak direla eta, zenbait herritar kexu

TXEMA ALDABE

Lehengo batean, Doneztebeko Udalak Arau Subsidiarioak onartu zuenaren berri eman genuen. baita EA eta Gure Herria kontra agertu zirela ere. Kontra egotearen arrazoia, honetan funtsatzen zuten: dauden diferentzia

izugarriak, erran nahi baita, eraikitzekeo lur-eremuetan, batzutan bertzetan baino puskaz ere etxebizitz gehiago egin asmodela. Geroztik, zenbait herritar kexu azaldu dira. Lurra saltzerakoan, irabaziak ez dira berdinak txaletak egiteko dagoen eremuan edo 2 edo 3 pisuetako etxebi-

tzak eraikitzekeoan. Arau hauek Nafarroako Gobernuak onetsi behar ditu eta gero alegazioak egiteko denbora da, hilabete bateko epean, hain zuzen.

460 etxebizitza berri

Herri buruan 294 etxebizitza berri egitea pentsatua dago eta herritik kanpo 166. Konparazio batera, eta

nolako aldea dagoen ikusteko, Osasun Zentro, Ezkurra, Erreka eta Zabala Zurgindegian 103 etxebizitza (2 eta 3 pisu gehi baxoa) egin nahi da 16.415m² eta berdeguneak 1.350m² lituzke. Tren estazioko bi-



(bertze aldean segitzen du)

dea, Aparan eta Baztan erreka mugatzen duten zatian 46.007m² daude, 51 txaletaegin nahi da, berdegunea 4.600m² delarik. Aparan lantegia eta Leku-Eder zinea arteko 17.388m²tan 33 etxebizitza eta 1.738m²ko berdegunea. Donamariako bidea, hau da, Ezpelura erreka eta Bordatxoren ezker aldean 30 etxebizitza, 56.158 m² eta 5.615 m² berdegunerako.

Oteiza, auzo industrial?


Berriki Udalak onartutako Arau Subsidiarioetan eta abenduaren 19an izandako bileran, Oteiza auzoko zenbait leku industrial bihurtzea aipatu zen. Erabaki honen kontra agertu zen Pello Arregi. Bere ustez, Aparan inguruan dauden 30.000m² eta Elgorriagako bidean ezker eskuinean dagoen lekua



Doneztebeko herri burua

aski eta sobera da gaur egungo industria beharrak betetzeko.

Doneztebe eta Malerreka harpidedunei: **ttipi-ttapa** garaiz ailegatzen da Correos-era. Etxeetara garaiz ailegatzea, azken hauen ardura da..



Osasun Zentru aldeko eremua

ITUREN

Inauteriak 27, 28, 29 eta 2an ospatuko

IBAN ISASI

Aspalditik ospatzen diren inauteriak, goian aipatutako egunetan ospatuko dira Ituren eta Zubietan. Egitaraua: **Igandean, 11etan**, Iturengo joaldunen kalejira eta puxken bilketa egingen da, ondoren, Herri Kirolei tartea egingen zaie. **Arratsaldean** dantzaldia

egonen da Christian Bordan-ekin. **Astelehenean, 10etan** kalejira Iturengo trikitilari eskolakoekin, **11etan** Joaldunen kalejira, **13etan** Aurtizko eta Zubietako joaldunei ongietorria egingen zaie. Karrozak, txistulariak, mozorroak, akordiolariak... **Arratsaldean** dantzaldia.

Asteartea, 29: 11etan: Iturengo Joaldunen kaleji-

ra, **13etan** Aurtiztar eta Zubietarrei bisita bueltatuko zaie. **Arratsaldean**, dantzaldia.

Larunbata, 2: Zaharren eguna edo **Kontuen eguna: 13etan** Iturengo Joaldunak. Ondoren bertsolariak (Mañukorta eta Lizaso). Bazkaria eta berriro bertsolariak. Arratsalde eta gauez Christian Bordan eta bere orkestra.

Eguberritan giro ederra

Jende eta giro izugarria egon zen. Urte zahar arratsan, jende ugari bildu zen afaltzera. Errege bezperan, Herriko Ostatuan 52 pertsona baino gehiago bildu bait ziren afaltzera. Gauez, hura orkestra polita mon-

(bertze aldean segitzen du)

tatu zena! Perikoren gitarrak elektrikoarekin Doneztebeko San Migelek jo zuen. Crhistianek akordioarekin, honek lagun batek bateria eta Fermintxo eta bere lagun batek, tronpeta eta panderoa jo zuten. Egun honetan ere, haur eta gazteek joariak jarri zituzten arratsalde eta gauetz; gauetz, Zubietako eta Aurtizko joaldunakin ia 40 lagun elkartu ziren. Errege egunean, Udalak gonbidatuta,

adinduen bazkaria izan zen 40ren bat elkartuz. Bazkarian adin haundienekoei opari batzuk eman zizkien Udalak Arratsaldean, pailasoei beren ekitaldia egin zuten haurren gozamenerako.

Tentsiodunentzako gimnasia eta txarлак

Urtarrilaren 7tik 13rako astean hasi ziren tentsioa gora eta behera dabilkientzat gimnasia eta txarлак Herriko Etxean.



Aurten ere joaldunak ibiliko dira Ituren eta Zubietan artean

SUNBILLA

Inauteetarako egitarau zabala prest

Hilbeltzaren 25, 26 eta 27an dira

PATXI PETRIRENA

Hiru egunez izanen dira aurten ere Sunbillako inauteak, eta egitaraua ikusirik erran liteke ongi hornitua dagoela bai bertako giro berezian sarturik bizi nahi dituenarentzat bai dantzaldi edo ikuskizunetzat gozatu nahi duenarentzat. Errate baterako, larunbatean gau-pasa izanen da pilotalekuan, sarrera dohainik, eta igandean karroza-desfilea eta herri-kirola.

Egunez egun, hau da egitaraua:

Ortizirala, 25: 9etan, gosaria Ulibeltzak elkartean; **11etan**, puxka-biltzea baserriz baserri; **5etan**, txokolatada haurrentzat elkartean; **8etan**, dantzaldia arkupetan hiru soinularrerekin; **10,30etan** afaria Ulibeltzak elkartean. **La-**

runbata, 26: 9etan gosaria; **11etan** eskea herriko karriketan; **2etan** bazkaria Fondan; **8etan** "maskara dantza"; **9,30etan** afaria Herriko Etxean; **11,30etan** gau-pasa pilotalekuan Jator taldearekin, sarrera dohainik. **Igandea, 27: 9etan** gosaria elkartean; **12etan** karroza-desfilea; **1etan** he-

rriko dantzariak eta herri-kirola Sunbilla eta Basaburuako taldeekin; proba konbinatua, emakumeek arpanean 5 ebaki eta Sunbillako idi-pare bat 2.000 kiloko harriarekin lanean. **2etan**, bazkaria elkartean; **6etan**, dantzaldia bertan Amalur-ekin.

Karrika nagusiko zutoiak hautsi

Bigarren aldiz jarriak dira porlanezko zutoi motzak oinezkoak lasaixeako ibiltzeko, baina berriz ere bakarren bat hautsia da, baita kamioiari gorpila lehertu ere. Bidea estuago izaki eta inork ez polikiago pasatu nahi dirudienetz.



Zer ikusiko ote dugu aurten?

BAZTAN

Errege egunean, jurado berriak izendatu ziren

Nobedaderik gabeko Batzarreak Elizondo eta Arraiotzen ezik

MAÑONE eta J. IGARABIDE

Seme-alaben "Mountain-bike", senarraren atorra, aitatxiren galtzerdiak edo amatxiren gona, berdin da, erregeak aitzaki ederra baitira erregaloak egiteko. Errege egunean, meza nagusiaren ondotik, Jurado berriak karguen jabe egin ziren. Normaltasun osoa Elizondo eta Arraiotzen ezik.

62,5 milioitan

Mariezkurrena izanen da Mugaireko karretera mantenduko duen enpresa, Nafarroako Gobernuak erabaki duenez.

Huelga 15 eta 18an

Lekarotz, Elizondo eta Oronozko ikasleek huelga egin zuten Golkoko gerraren kontra. Ortziralean, Elizondon giza-katea egin ondoren, ordu batez karretera moztu zuten.

Txirrindulari taldearen bilera

Urtarrilaren 19an Arizkunenean, aurrekontuak eta zuzendaritza karguak berritzeko egin zutena.

San Anton

Ohitura den bezala Eli-



zondon ospatu zen. Lehen, Erratzun ere ospatzen zen besta hau. Nekazari ugari, txistulariak, bertsolariak eta errifa. (7. orrialdean)

Ikastaroa

Zuhaitzak (sagar, gaztain, udare...) erein eta txertatzen ikasteko. Informazioa Balleko Etxean.

Arkupeak bilera

Urtarrilaren 18an, aurrekontuak eta urtean egin behar dituzten aktibitateak aztertu zituzten.

Txirrindulari taldearen bilera

Urtarrilaren 19an Arizkunenean, aurrekontuak

eta zuzendaritzaren karguak berritzeko.

Bildots merkeak

Bildots-erosle batek 290 pzta gehi IVA ordaindu zuen hainbat herritan. (bakarrik 12Kg.ko bildots onak). BEHIKI Kooperatibak, orde, zera ordaindu zien bere sozioei: Onak 380-400; txarrak 350-380.

Iruritako Frontoia

86.249.102 pztatako aurrekontua onartu du Udalak, Diputazioaren laguntza-segurtasunarik gabe. Frontoiaren inguruko obrak beranduago egingen dira. Erabakiaren kontra

EA eta HB, lur-eremu hauek "Tribunal Administrativo"aren azpian daudelako permuta dela eta; hurrengo aurrekontuak hipotekatzen dituelako, eta azkenik, aurrekontuaren igoera ez delako arrazoitu.

Etxebizitzak

Alkatetzak, enkuesta bat proposatu du laguntza Ofizialeko etxe beharra eta kokapena ezagutzeko. HB eta EAK, enkuesta baino Plana berehala egitea eskatzen dute, diotenez, enkuesta egitea atzeratzea bertzerik ez delakoz.

Pistzina

Konponketak egitea onartu da 2.296.186 pztatan.

Amaiurko pilotalekuan

hondamenak elurraren ondorioz. Konponketa, larrazoz-Larregi obra egileei dagokiola dio Udalak, obra garantian dagoelako.

El Pilar-eko zorra

Udalak, El Pilar-eko monjeei, berriro ere eskatu egin dio, hauek Lizentzia Fiskalagatik zor duten milioi terdia ordaintzea.

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinera bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

Beñardok irabazi zuen Urte-xaharreko apostua

MARGARI eta KORO

Hilabete bat pasatu da jadanik bainan uste dugu merexi duela ezagutzar-tzea Beñardoren balentria: urte-zahar gauean Beñar-do eta Pakittok Armuan ongi afaldurik eta animo osoan goizeko 4etan las-terka danpa-danpa herrirat pote bat hartzera etorri omen ziren. Lasterkaldi hau aski ez izaki eta biak bero-beroezinak apostu bat egin zuten: Beñardo ez zela 25 minututan Zuga-rramurdiko plazatik Urdazubiraino ailegatzan. Baietz eta ezetz, Beñardo abiatu zen beti, haren on-dotik kotxe karabana bat eta 23 minututan Urdazu-biko plazarat ailegatu omen zen (ez dakigu han sartzean Don Justinok bere



altabozak martxan paratu ote zituen saldatzeko). Beti ere, Beñardok Etxala-rren afari bat irabazi zuen.

Herriko karriken antolatze lanak

Urriako lehenbiziko TTPI - TTAPA-n erranginuen nola hasi beharrak ziren lanak herriko karrikak antolatzeke, bainan hau ez

zen posible izan zehazta-sun batzuk falta zirelako.

Abenduaren hogoiean, udal bilkuran ikusi ziren hiru proposamenduak:

- 1.- Zizurreko Irunasa, S.A.: 75.121.000 pztetan.
- 2.- Iruñeko Obenasa, S.A.: 73.875.005 pztetan.
- 3.- Lekunberriko Azpi-roz eta Saralegi S.L.: 70.512.912 pztetan.

Udalak erabaki zuen azken hau izatea lanen egilea eta 1991 urtearen barne bukatu behar direla proiektuak dioen bezala. Eta azkeneko, Iruñeko Antonio Sueskun Martinez jauna, bidetako ingeniaria lanen zuzendari izatea.

Zugarramurdi eta Urdazubiko 14 haur joaten dira egunero Sarako esko-lara OHO ikasketak egite-ra. Orain arte Sarako auto-bus bat etortzen zen hau-rren bila, bainan erran di-gutenez, arazoak sortu dire eskolako zuzendari eta autobus gidarien artean.

Hau ikusirik haurren gurasoek Baztanesa kon-tratatu dute haurrak goizen eraman eta arratsaldean bueltan etxerat ekartzeko.

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO



«ZALDUBI» SUKALDE MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

Esquisarri

jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO



Argazkiak, Bideoa, Markoak
ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 4503 64

SARA

Elizanburu urteaz

OLHAIN ELKARTEA

1828an Saran sortua eta haur denbora ere Saran iragan ondoan, Jean Baptiste Elizanburu sorterrira itzuli zen 1879-80an, eta Lekuederrean bizitu zen bere biziko azken urteetan, bertan hilez 1891an.

OSPE HAUNDIKO POETA

1860. urteaz geroztik hainbat bertso jokoetan lehen saria erdietsiz lortu zuen fama. Denbora haietan oste haundien aintzinean egiten ziren poesia sariketak eta herriko plazan emaiten ziren irabazleek izenak. Elizanburuk, poeta batek altxa zezakeen saririk hoberena beretu zuen: herriaren atxikimendua. Kantuen arrakasta haundia eta berehalakoa izan zen: bizi zelarik "Nere Etxea" (erran nahi baita "Ikusten duzu goizean") xuberotartua izan zen eta bertalalde "Etxe zuria" ize-



narenpean kantatua ere Bilbon... Gaur egun ahotik ahora guregana etorriak diren bertso hoiek, nork ez ditu ezagutzen eta kantatzen Euskal Herrian zehar?

MENDEURRENA

Elizanburu hilik ehun urte betetzen zirela eta 1991. urtean Saratar multzo bat Olhain Kultur elkartearen inguruan bildu da. Jean Baptiste Elizanbururen aipamena eta ospearen berritzea izaki, hasi gara "Elizanburu urtearen" antolatzen, urtean barna

zonbait ospakizun berezi:

Otsailaren 17an: Meza nagusia eta Herriko Etxean Elizanburu urtea ofizialki hasiko da. Sarako korala eta eskoletako haurrak kantuz. Arratsaldean: Alkat, Arozena, Sarasua, Xanpun, Esponda eta Jon Enbeita. Gai-emaile Daniel Landart.

Apirilaren 1an: Euskal Idazleen Biltzarra. Elizanbururen kantuekin osatutako liburuttoaren agertzea eta saltzea. **Urriaren 12an:** Kantaldia Sarako

elizan. Elizanbururen obra eta kantuekin egin diska berriaren argitaratzea. **Abendoaren 20-21ean:** Euskaltzaindiaren Biltzarra eta Mintzaldiak. Karia hortarat, "Elizanburu Poesia Sariaren" emaita.

Lan guzi hauen aintzinerat eremaiteko Olhain elkartearekin elkartu dira bertze erakunde asko. Hala nola, Syndicat d'initiative, korala, eskolak, Herriko Etxea, Euskal kultur erakundea, bertsularien lagunak eta Euskaltzaindiaren partaidetza ezta bakarrik antolakuntzara mugatu, beharrezko diru zama ere gogotik ekarri dute.

Herriko Etxeko ostatuan Mus Txapelketa

Otsailaren 1ean hasiko da eta ortzirala arrats guziz jokatuko dira partidak. Izenak eman lehenbailehen, ez ahanzt lehen saria bildotsa dela...!

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guerendiain

SARA - LAPURDI



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE

LAN ESKEINTZA

Iruñea ondoko nekazal-kooperatiba batek, **senar-emazteak behar** ditu kuadrako lanak egiteko eta hazindak zaintzeko.

Soldata eta etxebizitza eskeintzen da. Interesatuak, **deitu urtarrilaren 31 baino lehen 302052 Tfnora.**

AIGN, Paraje del Soto, IZA

Iñauterik bizi ditugu Leitzan ere

Besteak beste, garai bateko "eztaiak" berretu nahi dira igandean



ANTTON

Urtarrilaren azken asteburuan, Iñauterik ospatzen ditugu herri hontan ere. Etorri nahi duenak, etorbedi, gonbidatua dago.

Larunbata gauez, afari batekin hastekoak gara. Aurreran, trikitixa eta guzti. Gero gerokoak.

Igandea, egun haundia. Iñauteritako igandean, "eztaiak" edo garai bateko ezkontza berretzeko asmoak daude, duela hamalau urte egin izan zen antzera.

Astelehena eta asteartean, baserritara jira, eskean.

1990. urteko datu batzuk

- 25 jaio berri izan da herrian.
- 12 heriotza.
- 8 ezkontza.
- 1990. urtean, 3.148 bizilagun zeuzkan Leitzako herriak.

Autobia: Ezin ukatu hor dagola

Aspalditxo hontan Leitzeko herriak ere hurbiletik bizi izan du Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko autobien gaia. Guk orain arte ez dugu aipatu ere egin kronika hontan, ez balego

bezala. Baina abestuzarena ezin dugu egin, gaia hor dago, eta noski, betebete harrapatzen gaitu.

Gaurregun ezin da Leitzeko bizitzaz hitzegi, autobia aipatu gabe, berak eragin zuzenik bait dauka gure eguneroko bizitzan: herriar batzuk Areso eta Gorritiko obretan ari dira lanean, kanpotar asko sartu da Leitzara bizitzera, horrek proiektio franko badu herriaren martxan (komertzioan, etxebizitzaren prezio eta errentetan, jende armatua eta elkarren errezeloak, gazte bikote berriak...) etabar.

Eztabaida bat ezik, gatazka gogor bat ere sortu da honen inguruan, hemen eta han. Hain hurbiletik bizi ez duen irakurlearentzat, esan, informazio modura, hiru edo lau postura dau dela behintzat autobien tema hontaz. Bata, proiektu ofiziala, instituzioetan aprobatutakoa, eta Leitzarandik pasatzen dena.

Beste bat: Lurralde Almatiba, lau karriketako bidea proposatuz, baina batitpat lehengo bideak doazten lekutik. Hirugarren bat, autobien beharrik ikusten ez duena, eta bide zaharrak zabaltzea nahikotzat duena. Eta beste postura bat: edozein proiektu burutzeko, akordio sozial bat bilatu behar dela, elkarriketaren bidez eta ahal bada Leitzaran salbatuz eta Tolosatik pasatuz. Datozen egunetarako, bi manifestazio deituak daude, gaia honek sortu duen gatazkaren adierazle.



GOIZUETA

Kezkagarria da zentral hidroelektrikoetako langileen egoera

ESTEBAN AROZENA

Garrantzi haundiko industriarik gure herrian inoiz izan ez denez, azken ehun urte hauetan Urumea hibaiaaren ubidean dauden zentral hidroelektrikoak izan dira Goizuetako aberastasun haundiena, lanpostuei dagokionez behintzat. Iberduero, Papelera Española eta Cementos Rezolarenak dira edo ziren salto hauek.

Baina azken urteetan aldaketa haundiak eman dira lan zentro hauetan, eta indar elektrikoaren produkzioa mantendu edo gehitu bada ere, lanpostuen kopuruak urtetik urtera behera egin du, kasu batzuetan langile batek bi edohiru zentraletako lanak betetzen dituelarik gaur egun. Horren ondorioz, duela gutxi arte berrogei



Cementos Rezolaren zentralako bi lanpostuak galduko dira

edo berrogeitamar goizuetarrek eguneroko ogia irabazten zuten tokietan, orain sei edo zazpi daude bakarrik. Zenbaki hotz hauek garbi adierazten dute gure herriarentzat zer suposatu duen beherakada nabarmen honek (langabezia, herritik aldegin beharra, etabar.).

Gaur gai hau ukitu baldin badugu ez da kasualitate hutsa izan, lehen aipaturiko egoera txar hori oraindik ere areagotu duen zirkunstantzi bat gertatu delako baizik. Urte berriarekin batera, Papelera Española eta Cementos Rezolaren zentralak eskuz aldatu dira, eta nola ez,

erabaki honek beste lanpostu batzuen galera ekarri du.

Gehien bat erakunde publikoek osatzen baldin badute ere erosleen elkarrekin (Nafarroako Gobernua eta Aurrezki kutxak) ez dute inolakorik gupidarik izan langileekin, eta Cementos Rezola enpresari dagokionez, ziurta daiteke epe motzean galduko direla oraingo bi lanpostuak.

Papelera Españolaren zentralak automatizatzeak daudenez, oraingoz bertan jarraituko dute langile guztiek, baina jakinaren gainean daude hiru edo lau urte barru automatizazio hori burutuko dela. Horrek ekarriko duen ondoria asmatzen ez da zaila izango noski, beste zentraletan zer gertatu den ikusirik.

Lara

MUSIKA DENDA
ZERBITZU
BERRIAK

- ✓ Ekipoen alokairua
- ✓ Disko-bar, diskoteka, e.a. ekipoak
- ✓ Soinu ekipo guztiak orokorrean

San Esteban 37 - Tfnoa: 63 10 59 - BERA

LAISTER ZABALIK

OKANE

Haragitegia - Urdaitegia
Janari izoztuak

63 00 18 - Kanttonberri 4, BERA

EZKONTZAK

Jose Mari Telletxea Iparragirre eta **Maria Milagros Iraola Sarratea**, Igantzi eta NARBARTEkoa, abenduaren 15ean.

Ana Isabel Jorajuria Lastiri eta **Martin Jose Aizpurua Isuskiza**, Sunbilla eta Errezilgoa, azaroaren 10an.

Francisco Maria Errandonea Maia eta **Sophie Garcia Larra-txe Bera** eta Baionakoa, abenduaren 8an.

Pedro Jaunsaras Braña eta **Koro Migueltoarena Ariztegi**, Almandotz eta Doneztebekoa, urtarrilaren 12an.

Maribel Inda Juanena eta **Jose Luis Oronoz Lertxundi** Donamaria eta Lesakakoa, urtarrilaren 12an.

JAIO TZAK

Jone Bizente Maia, Etxalarren, urtarrilaren 4ean.

Gorka Irigoien Iparragirre, Etxalarren, urtarrilaren 6an.

Larzabal Sebastien, Saran, Urtarrilaren 2an.

Pambrun Morgane, Saran, Abenduaren 28an.

Naitze Yanci Gillenea, Lesakan, abenduaren 17an.

Mikel Alkoz Zabaleta, Leitzan, urriaren 22an.

Asier Baraibar Zabaleta, Leitzan, azaroaren 15ean.

Jon Denis Kalonje Azpiroz, Leitzan, irailaren 16an.

Jokin Garmendia Iriarte, Elizondon, Urtarrilaren 11an.

HERIOTZAK

Antonio Aramendi Agirre, Beran, abenduaren 15ean, 74 urte.

Fco. Javier Iturria Pagola, Beran, abenduaren 24ean, 56 urte.

Maria Dolores Eltzaurdia Retegi, Beran, urtarrilaren 1ean, 63 urte.

Fernanda Ozkoidi Usandizaga, Beran, urtarrilaren 12an, 76 urte.

Mariluz Beñado, Saran, urtarrilaren 11an, 83 urte.

Martin Altxu, Iturenen, urtarrilaren 4ean

Balentin Makazaga Zabala, Goizuetan, 74 urterekin.

Fernanda Ozkoidi Usandizaga, Lesakan, urtarrilak 12, 77 urte.

Cecilia Gastesi Otermin, Areson, abenduaren 30ean, 78 urte.

Fermin Beraza Zubillaga, Leitzan, urtarrilaren 7an, 89 urte.

Damasa Babace Mitxeo, Donamarian, urtarrilak 9, 85 urte

Carlos Martikorena Etxeberria, Elbeten, Urtarrilaren 15an.

Fco Javier Gamio Larraburu, Gaztelun, urtarrilak 10, 44 urte.

Cecilia Belarra Belarra, NARBarte, urtarrilak 14, 80 urte.



SUKALDE ALTZARIAK
Legia, 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA
KONPONKETAK


ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

Zure iragarkiak
inguru honetako
3.900 etxetara
zabaldurahi
badituzu, deitu
631188 telefonora

Hiru mende laurden dira abiatu zela “Bidasoako Trena”

Otsailaren 1ean, hirurogeitamabortz urte beteko dira “Bidasoako Trena” abiatu zela goizeko 8,18etan Irungo Kostorbe geltokitik. Meatzal tren aurreratu bazitzaion ere, iragan mendearen bukaera aldera Ramon Aginaga ingeniariak idatzitako egitasmoa gauzatu ondoren, Baztan-Bidasoako herriak zeharkatuz, giza eta ekonomi alorretan eragin garrantzitsua izan zuen 1916an bide meharreko bidaiari-tren bihurtu eta 1956ko abenduaren 31an betiko gelditu zenak. Berrogei urteko bizitzan, gora-behera nahiko ezagutu arren, denbora ez zen alferrik igaro. Lineako autobusek eta merkantzia garraioa tonelaia handiko kamioiek bereganatuz joan ziren inguru hauetako komunikapenak “Bidasoako Trena”ren erabateko desagarpeneraren arrazoi nagusiak bihurtuz. Hala eta guztiz ere, urteurren nabari honetan, “Bidasoako Trenbideen” Elkargoak sortutako komunikabide aitzindari honi buruzko zenbait xehetasun eskeintzera dator efemeride gogorarazte hau, teknologi aurrerapenei esker abiadura azkarreko tren iristear dagoelarik egunotan Euskal Herrira.

ROMAN ARRIBILAGA



Lekarotz. Behean, Bidasoako Trena Elizondo alderat

Argazkiak: M. Cariñenak utziak

Lehenagotik saialdi bat egin bazen ere, Irun eta Endarlatsa lotzen zituen meatzal tren herri zerbitzura ireki eta Elizondoraino luzatzeko, 1911ko irailaren 11an lortu zen lizentzia. Hurrengo urteko urrian argitaratuko zen Nafarroako Boletín Ofizialean, Leon Mourgues-ek eskatutako Irun eta Elizondo arteko trenbidearen eraiketa eta hustirape-narako eskariaren baimena. Hau, bidaiari eta merkan-

tzia garraiorako baliagarri zen eta ez zeukan Estatuaren dirulaguntzarik.

Ramon Aginagak idatzi eta Brandy frantzes ingeniariak moldatutako haserako egitasmoa landu asmoz, Donezteben bilera egin ondoren, frantzes finantzar talde bat ordezkatzeko Leon Mourgues-ek gauzabide lanei ekin zion otsailaren 1913an, oztopo anitz gainditu eta gero. Baina 1914ko Europako Gerrak atzeratu egin zituen lanak 1916ko otsailaren 1ean Irun eta


Doneztebe lotzen zituen lehen tarteak ofizialki zabaldu arte.

Lehen abiadak

Agintariekin batera, jende ugari itxaroten zegoen trenaren helduera Doneztebeko geltokian. Konboia, musika banda eta suziriek harturik, goraka eta txaloka hasi zen jendea isilunea eginez, ondoren herriko Miguel Jaunsaras erretoreak lokomotorea eta bagoiak bedeinkatzeko. Egintza amaiturik L. Mourgues, Elkargoko zuzendariari eta hirurogei gonbidaturi, bazkari eder bat eskeini zitzaion Herriko Etxean. Aldiberean, herriarren artean ogia eta ardoa banatu zen dohainik. Zerbait hilabete geroago, majatzaren 28an, Elizondoraino zeraman 51,499Kmtako linea osoa zabalik geratu zen. 8.000.000 aurrekontua zeukan eta Iruñeako artzapezpikuak bedeinkatu zituen ibilbidea eta makineria.

Egitasmoaren gauzabidea

Ibilbiderako eremu desjabetuak 310.000 pztan erosi zituzten Bidasoa aldeko herriek. Bidean zortzi tunel zulatu ziren, 200 m. luzerako bi, 90 eta 100 arteko hiru eta laburrago bertze hiruak. Burdinezko zubiek, berriz, 6 eta 8 m. arteko luzera zuten. Trenbidea, bertzalde, Bidasoaren ezkerreko bazte-



Irun, Bidasoako Estazioa



Lesaka-Etxalarko tren geltokia. Trenbidean, automotrizak.

rretik zihoan ibilbide gehiengoa, Narbarte eta Oronotz artean ez zuten. Geltoki eta galekuei dagokienez, honako hauek ziren: Irunmuga geltokia, Irun-Bidasoa (Kostorbe) (gel.), Arteaga (galekua), Behobia (gel.), Endarlatsa (gel.), Zalain (gel.), Alkaiaga-Bera (gel.), Lesaka-Etxalar (gel.), Igantzi-Arantza (gel.), Espelosin (gel.), Sunbilla (gel.), Doneztebe-Elgorriaga (gel.), Legasa (gel.), Narbarte (gel.),

Erreparazea (gel.), Oronotz-Mugairi (gel.), Arraiotz (gel.), Errota-bidea (gel.), Irurita-Lekartz (gel.), Lekarozko ikastetxea (gel.) eta Elizondo (gel.).

Trenaren ezaugarriak


Berlingo "COPPEL" lantegian egindako piezez lau lurrin lokomotore handik osatzen zuten Bidasoa Trena. Hiru ardatzez horniturik, 68 tonako pisua zuten, 300 ZP garatuz

bakoitzak; izen bana zera-matelarik: 1 zbkia "Gipuzkoa", 2 zbkia. "Bizkaia", 3 zbkia. "Araba" eta 4 zbkia. "Nafarroa". Hauxe gain baziren bertze hiru tikiago eta indar gutiagokoak: "Zarautz" 4 ardatz eta 32 tona; "Amezola" 3 ardatz eta 23 tona; "Irun Hiria" 2 ardatz eta 18 tonakoa. Aitzinago, 1931 urtean, Belgikako "Panhard" enpresak egindako plaka birakorreko "Verney" eredu automotrizak ekarri zen lurrin lokomotoreak ordezkatzeko 1933an gehitu zitzaizkion bi gehiago, gasolina motorez hornituak bi ardatz eta 7 tonakoa. Halaber, Elkargokoak, 1936 urtean, zituen: 1. eta 2. mailako 6 kotxe mixto, 3.eko 7, 3.eko mixto eta furgoia bat, bagoi itxiak 11, hegal garaiko 10,6 tona zamarako hegal beheko 22 eta 37 gehiago minerala garraiatzeko.

Haseran, lurrin trakzioaz 3 ordu inguruz burutzen bazen Elizondorainoko bidaia, 2 ordu 10 minututara beheratu zen denbora automotrizen eranspenarekin. Lau bidaia egiten zituen Bidasoa Trenak egunero. Irundik Elizondorainoko norabidea, alderantzizkoa baino garestiago zen, maldan goiti gasolina gehiago erretzen bait zen. Posta, zura, ikatza, egurra eta haziendatar mugatzen zen funtsean merkantzia garraioa.

Bengoetxea III, Ezkurrako semea, Leitzan bizi dena: “Azken boladan asko sufritzen ari nintzen eta utzi egin dut pilota.”

Elur bústia ari du Leitzen, mendiak txuri txuri daude. Negua. Hotza. Larunbata atsaldea da, baina Gorriztarango baserrian aurkitu dugu Juan Mari Bengoetxea, “baserri zahar hau pixko bat berretu eta zutik jarriko ote dugun”, hantxe ari ziren bera eta bere anaia Miguel. Txapelak eta famak ez ditu eroarazi biek ere. Apalak, serioak, atseginak. Tristura pittin bat sumatu diogu Juan Mariri begiradan...



17 urte profesionaletan eta pilota uztera omen zoaz.

Bai, bada hilabete bat, utzi egin dut pillota. Aspalditxo hontan buruari bueltak ematen nentorren asko sufritzen ari nintzen,

ziatika txar honengatik, eta azkenik “aski da” esan diot neure buruari. Partidu gu-txi jokatzeko ari nintzen azken aldian, eta horrela ezinda puntuan egon. Aski da. Uzten dut.

Ziatikak “hautsi” du

Bengoetxea III.a?

Ziatika eta beste gauza batzuk ere. Baina bai, suerteak ez nau lagundu gehiegi. Lesioak asko atakatu naute. 28 urte nituenean, sasobe hoberenean, bederatzi hilabetez egon behar izan nuen geldirik. Geroxeago beste lau hilabete... zer nahi duzu ba. Ordua ailegatu egiten zaigu hemen denei. Garai batean ez duzu uste, baina oharkabea 37 urtetan jartzen zara eta...

Juan Mari Bengoetxearen bolea, zartakugarbia, famatua izan da, mundiala.

Baliteke horrek ere zeri kusirik edukitzea nere miñarekin. Asko fortzatzen nuen gorputza, dena eman nahi nuen frontoian. Beste modu batera nik ez dakit pillotan aritzen.

Eta orain?

Orain pena pixko bat. Baina eskailera igotzeko eta jeisteko izaten dira. Orain, baserri koxkor hau erosi dugu anai eta biok, eta hementxe, hauxe alde aldera jarri etabaserri lane-tik biziko ote garan... Txerri granja bat ere badugu hor, azpikaldean, eta eutsi, bizi lasai bat eginaz, nere gustokoa den bezala.

Zer eman dizu eta zer

kendu dizu pilotak?

Dena, dudan guztia zor diot pillotari, baina aski dela esan diot neure buruari.

Erantzuterakoan, begiak lurrean ezarri ditu, eta zimikuan hartu ezpainak. Apustu eginen nuke gauza asko dauzkala gizon honek esateko. Alegia, txapelaren azpian izandua izan den diragazi-gezak. Baina bera ohartu da ohartu garela.

Bueno, oraingoz atsedeen hartuko dut. Baina segitu nahiko nioke. Ez nuke utzi nahi. Geroxeago, herrian eta ariz, ikusiko dugu.

Esker onekoa da pilotaren mundua?

Ez da kanpotik ikusten den bezelakoa.

Juan Marik bere seme bat pilotan hasten ikusiko balu, zer esanen lioke?

Badut seme bat afizio polita dakarrena. Begira, atzo bertan esaten zidan: “Aita, egin ahalak eginen ditut zu ahina izateko”. Saia dedila behintzat. Geroak esanen du. Nik laguntza osoa emanen diot. Adin hortan, kirol pixko bat eginaraztea ere ez da gutxi.

Juan Marik badu anai zaharragoa pilotari polita izana ere. Eta bere atzetik Miguel...

Nondik datorkie zale-tasun hori Bengoetxeata-



Antton



Antton

rrei?

Osaba batzuk oso ongi aritzen ziren pillotan.

Ezkurran frontoi ondoan bizi ginen eta tarte guztiak frontoian sartuta, garai

hartan ez zen besterik herrian. Bazkal ondota, izebak trapu txuri bat ateratzen zuen leihora, osaba siestatik jeiki zela eta lanera itzuli behar genuela jakiteko guk.

Zer behar da pilotaria izateko?

Pillota kirol gogorra da. Sufritzen jakin behar da pillotan. Gu geu, oroitzen naiz, eskuak ubelduak, beltzatuak itzultzen ginen etxera pillotan ari eta. Amor propio ikaragarri genuen eta tira berriz ere. Sufritzen jakin, disziplina, ari eta gustora ari, nik esanen nuke.

Pillota krisialdi bat pasatzen ari ote den galdegin diogu, eta datozen gazteetan ("aterako dira, aterako al dira")... eta berak bizitutako pasadizo frankoz.

Eta orain, omenaldi bat eskeini behar dizute-la "Labrit"en.

Hala diote. Eskertzekoa izanen da, eta pilotak eman didan guztiaren esker ona azaldu nahi nuke egun hortan.

Bazter guztitatik deika, ez zaitugu pakean utziko egun hauetan.

Bai, iduri duenez, berriro fama heldu zait bueltan... Ja, ja. Egia da, leku askotatik deika ari zaizkit. Agur egitera heldu dira, pena pixko bat ematen du baino gustora nago.

Omenaldiaren argiak ere itzaliko dira baina Juan Mari Bengoetxea ez da umezurtz eta esku hutsik geldituko. Bihotz betean pilotan aritu den txapeldun haundi honi lagun askoren maitasuna gelditzen zaio.

ANTTON ERKIZIA

Txapeldun baten 37 urtetako kronika ttipia

- Juan Mari BENGOTXEA MARIEZKURRENA.
- Jose Juan eta Martxelinen 3. semea. 10 anai - arreba.
- Ezkurran jaioa, "Plazenean". 12 urtetan Leitza.
- M^a Jose Azpiroz "Txuita" - rekin ezkondua.
- Bi seme: Aitor (11 urte) eta Egoi (8 urte).

- Lehenbiziko herri txapelketa.
- Inter - Pueblos, Leitza bi aldiz txapeldun.
- 17 urterekin, Federazioarentzat jokatzeko hasten da.
- Jubeniletan, txapeldun, Martinikorenarekin.
- Torneo GRAVN, txapeldun. 18 urte ditu.
- Binaka ezik, "esku esku" nabarmentzen hasten da.
- Torneo Federaciones: Gijonen galtzen du.
- Torneo Federaciones: Txapeldun.
- 20 urtetan profesioalera. Debuta esku esku Ariño IV. aurka. "Eskulari" sortzen dute.
- Lajosekin hasten ditu prestakuntzak
- Txapeldun, esku - esku (1978, 1979) eta binaka (1979).
- Torneo San Fermin, txapeldun

50 urte pasatuak eta... Beti Gazte

Iaz izan zen 499 bazkide dituen Lesakako elkartearen urteurrena



Gaur egun, 172 kirolarirekin lanean ari den Beti Gazte Elkartea, aspaldian dabil Nafarroa eta Gipuzkoako futbol zelaietan, errepideetan eta azken urteotan xake mahaien aintzinean ere. Hona hemen hainbeste urtetako kirol lanaren pelikulatxo laburra.



Beti Gazte Kristo - Enea futbol zelaian, 1941. urteko Maiatzean

(Juanito Telletxeari eskerrak)

Hasera

1940. urteko Abuztuaren 10ean sortu zen Beti Gazte elkarteak orduko Acción Católica-ren eskutik, honek zituen koloreak hartuz: txuria eta orlegia. Hasieran gazteak bakarrik biltzen zituen, baina ez soilik futboleant: herriko lehen elkarteak zenez, dantza eta beste ekin-tzak ere antolatzen zituen. Gero ezkonduak ere sartzen hasi zirenez, bokalia bat sortu zen lehenik, Asociación Deportiva bihurtuz. Orduan hasi ziren Kristo - Enea futbol zelaia egiten, orduko gerrako prisio-

roek eta eskolatik aterata laguntzera hurbiltzen ziren gazteek, baita lehenengo txapelketak jokatzeko; Copa Frontera edota Bidasoako txapelketa, Lekarotz, Elizondo, Bera, Urdanibia edo Roca taldeen aurka. Bi al-ditan irabazi zuen azken txapelketa hau Beti Gazte-ek. Geroztik gorabera aunitz izan ditu taldeak, orain dela 15 bat urte taldea desagertu zen eta orduko jokalaririk asko Irungo Real Unión-era joan behar izan zuten.

Jarraipena

Historia hurbilean ere baditu Beti Gazte taldeak

momentu aipagarriak. 1985-86 denboraldian preferente mailara pasatuko da. Igoeraren eguna ahazte-zina izanen da; Beti Gazte bigarren geratu zen Gipuzkoako Erregionaleko I. mailan eta Arabako Huracan taldearen aurka jokatu behar zuen promozioa. Lesakan jokatu-tako partiduan 7-0 irabazi zuen Beti Gazte-ek, itzulian Gasteizen jokatu behar zen partidua besta bikain batean bihurtu zelarik; bi autobus, banderaz, musikaz eta ilusioz bete ziren eta Lesakara itzultze-rakoan, merezitako ongietorria eskeini zitzaion jo-

kalariei, musika banda eta guzti.

Igoera honek berritasun haundiak ekarri zituen Beti Gazte taldera. Alde bate-tik, 3. mailan egondako talde "historikoen" aurka jokatzeko aukera; Touring, Mutriku, U.D.A., Bergara, etabar luze bat eta honek suposatu zuen Bortzirietatik kanpo jokalaririk batzuk bilatzea, mailari eusteko asmoz.

Bertzalde, futbol zelai berri bat eskatzen zuten ahotsak indartu ziren eta azpiko taldeak sortzeko beharra ere bai.

50 urte beranduago...

Horrela, futbolari dagokionez, gauregungohiru talde federatuekin aurkitzen gara, preferentekoaz gain: Jubenilak 18 fitxekin, kadeteak 19 fitxekin eta infantilak 22rekin, alebin talde bat ere ari delarik eskola edo harrobi bezala 12 gaztetxorekin. Preferente mailan 23 fitxa dauka, nahiz eta batzuk, lana edo soldaduska dela eta jokatzetik ez izan.

Gogoratu behar da, urte pare batez nesken talde ere egon zela, seguraski estatu mailan gogorrena den Gipuzkoako kategori horretan, bertan Añorga eta Oiartzun taldeak, hainbat aldiz Espainiako txapeldunak gertatutakoak jokatzeko bait zuten.

Preferentera bueltatuz, gogoz geroztik, urtero maila mantendu du taldeak –aurten bosgarren denboraldiz– batzutan lasai, bestetan lan gehiagoz. Joan den urtean, adibidez, kategoria mantentzeko Soralue taldearen aurka jokatu behar izan zuen promozioa.

Futbolaz gain, txirrindularitza ere bultzatu du Beti Gazte taldeak azken urteetan, hemen ere talde kopuru polita osatuz. Orain, 39 neska-mutiko dituzte eskolan, gerora eskualde mailan osatu den CAN - Baztan - Erreka - Bidasoa ekipoa sartzeko (hemen 11 gazte daude gauregun). Baita ere, Xake



Aurtengo taldean gaztetasuna nabaria da



Neskek ere izan dute tarte Beti Gazte taldearen historian

taldea atera du berriki Beti Gazte, 18 gazte federatuekin eta beste 10 eskolatan, azken denboraldian mailaz gozalarik.

Segituko du...

Etorkizunerako, futbol zelai berriaren beharra dago, baina hau, "utopia" bat izaten jarraitzen du. Hain urruti ikusten denez, momentuz berrikuntza txiki batzuk eginak daude Kristo - Enean eta beste batzuegiteko asmoa dago.

Aldagela berriak, joan den denboraldian bukatu ziren, entrenamendueta-

rako argi berriak oraintsu paratu dituzte eta futbol zelaiaren inguruan, 6 metro altuerako sare bat jartzeko intentzioa dago, bai eta egoitza bat lortzekoa Alondiga zaharrean.

Kirol etorkizunari dagokionean, preferente mailako entrenadore den Kotte Iñantzen ustez, "Preferente mailari eustea garrantzitsua da, bertan dauden taldeen mailagatik, eta gero maila honetan finkatzea izanen zen helburua. Azpiko taldeen lana ezinbestekoa da, alde batetik horrela mutiko gazteak kirol egiten dutelako eta bestetik futbol talde batek funtzionatzeko atzetik gazteak behar dituelako, eta horren adibidea, aurtengoan preferente mailan jokatzeko ari diren jokalariek aunitz, joan den urtean jubenilak zirela".

AITOR AROZENA

Hamabostaldiko jokaldiak

Jokaldirik hoberena

Kepa Arretxea pilotazalea.

Beran, Udaletxetako arripetan jokatu ohi den pasaka pilota modalitateko zaharrenetako bat, berpizteko ahaleginak egiteagatik. Haurrekin hasiko da asteazkeneko 3tatik 5tara.

Jokaldirik txarrena

Malerrekako Udaletxe guztiak.

Kirol koordinatzailearik gabe gelditu, noren axolagabekeriz? Aktibitate guztiak gelditurik eta kirol plangintza guztia geldirik. Berriz ere gibelat. Frontoiak bai, kirol aktibitateak ere bai.

Malerreka kirol koordinatzailezik gabe

Malerrekako kirol koordinatzailea zen Mikel Ibarrola, 3 urtetako lana kontutan hartu gabe lana "utzi" behar izan du eta, bere iritzia eta Mattari, Bortzirietako kirol koordinatzailearena jaso nahi izan ditugu.

Zergatik "utzi" duzu lana?

Abenduaren 31an bukatzen zitzaidan kontratua eta udal-ordezkarien bilera batean (abenduak 20an) erabaki beharra zeukaten berritzea ala ez. Hamaika udaletatik 5 bakarrik agertu ziren bilerara (honek garbi erakusten du soluzio bat emateko borondatea) eta bertan ez zen deusea erabaki, gisa honetan epea bukatu zait eta hau da dena.

Zer gertatuko da orain?

Nahiz eta orain arteko lorpenak oraindik iraun, arriskua dago lehengo tokira itzultzea, nik aurkitu



nuen egoerara hain zuzen. Aktibitateetan beherakadak, talde askok komarka mailan antolatzen diren aktibitateetan parte hartzerik ez, aurtengo kirol plangintzarik gabe, herriko bestetako kirol aktibitateak antolatzekeko posibilitate gutxiago, Nafarroako Gober-

nuaren subentzioak, fiskalizazioa, banaketa... egin gabe geldituko dira. Eta garrantzitsuenak, sortzen ari zen kirol egitura zonal edota eskualdeko berriz ere gelditzea izanzen litza-teke eta bertze kirol koordinatzaileen artean desanimoa sortzea.

Baztan-Bidasoa: Kirola arriskuan

(...)Malerrekako agintari jaunak: zuen gestioa kritikatzeko inor ez naizela erran dezakezue, zuekin ez bait dut inolako lan harremanik, baina erranen dizuet Mikel Ibarrolak lankide bezala burutu duen lana, ordaindu gabeko ordu-extrak, izan dituen ardura haundiak eta zonaldeko hurrek zioten mai-tasuna, gutik jakinen duzuela nik dakidan beza-la(...) Baina ez jaunak, ez du deustako balio frontoiak, igerilekuak, etabar egitea, gero ez badago programaziorik, dinamizatzailezik, organizatzailezik(...) Artikulu honekin eritzi publikoa Malerre-kako egoerataz konturatzea nahi nuke, eta norbait ez badago ados, publikoki erran dezala interpretazio txarrik egon ez daitezen.

MATTARI ALTZUARTE

Guzi hauen zerbitzura gaude



KOXKA NAVARRA, S.A.

ZERBITZU TEKNIKOA

BERAN: 63 08 98 Tfnoan.
IRUNEAN: 26 64 11 Tfnoan.

- ✓ DENDA
- ✓ SUPERMERKATU
- ✓ IZOZTEGI
- ✓ HARATEGI
- ✓ ARRAINDEGI
- ✓ GOZODENDA



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESACA

Zergatik edaten dute gazteek?


HAINBATETAN aditzen dugu gurasoen eta jende helduaren kezka, euren seme gazteek gehiegi edaten dutela eta.

Adin horretan gertatzen diren trafikoko istripuko eta asko, errealitate horretan dute dudarik gabe bere oinarria.

Hau ulertzeko, ezin dugu ahaztu edari alkoholikoak hartzea, gizarteak, ez bakarrik baimendu, gazteen gizarteratze edo sozializazioa bultzatzen duen modu bat ere badela.

Gaztea bere adiskideekin hasten da edaten eta modu honetan, alkohola, "haunditasuna" edo "hel-lutasuna"-ren ezaugarri batean eta talde edo kua-drillaren barnean integratzeko mekanismoan bihurtzen da.

Azken finean, heldua izan ohi da gaztearen erreferentzi puntua eta helduok, gure ingurunean asko eta sarritan modu desegokian edaten dugu.



Nafarroako OSASUN MENTALEKO TALDEA

GAIA

OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

- ✓ Mediku naturista
- ✓ Reflejojoterapia
- ✓ Dieta mota guztiak
- ✓ Kosmetika tratantea
- ✓ Alternatiba osasungarria
-kimikarik gabea-

Bittiria 6
Tfnoa: 637410
LESAKA

Zatoz konfiantza osoarekin

LUR APAL

MEKANOTERAPIA ZENTROA

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 **LESAKA**



MERKEALDIAK

San Migel auzoa 27,
450883 - DONEZTEBE

MERKATU TTIKIA

▼ Etxebizitzak

• **Behobian** etxebizitza salgai Txantre etxetan. Tfnoa. 943 - 623288.

• **Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637410

• **Doneztebe** inguruan, 3.200m² duen borda bat salgai. 1.200.000. Tfnoa: 450054.

▼ Lana

• **Astean zehar** Bera, Lesaka edo Irunen lan eginen nuke; bai haurrekin, etxeko lanetan, ostatu batean edota komertzio batean. Dei 630789 tfnora. Amaia.

• **Administrari bat lan** egiteko prest; 7 urte terdiko bulego-esperientzia. Tfnoa.: 943-51 38 95

• **Andre batek edozein lan** eginen luke Donezteben eta goizez, igandetan ezik. Dei 45 07 70 Tfnora.

▼ Salerosketak

• **DOLMAR 120 SUPER** motozerra salgai. Tf-

noa: (943) 490619

• **“Desbrozadora” bat** salgai dago Arizkunen. Berri-berria, batere ibiltzekoa. Deitu 453037ra 3etatik aitzinera.

• **STHIL 08S** motozerra salgai. Tfnoa (943)490619.

• **Akordeoi bat salgai** Estrella markakoa. Gorri kolorekoa, tekladuna eta 96 baju dituena. 450499 tfnoa.

• **Bazka egosteko pazina** erosiko nuke. Tfnoa. 592043.

• **Esne tanke bat**, Japy markakoa 150 litrokoa saltzen da. Tfnoa. 450465. Begoña - Donamaria.

• **Logela bat** salgai dago. Erabili gabekoa. Goatzea 1,35 mkoa., armairua bost atekoa, bi mesilla eta tokadorea. Harritz egurraz egindakoa. Tfnoa.: 637879

• **Goldoni** traktorea salgai, 30 CV. Osorik. Tfnoa: (943) 490619.

• **Asto bat** salgai daukat. Lanean hezia eta emea. Tfnoa: 61 50 16. Saldias.

• **Montesa “Cota 309”**

motorra salgai daukat. Gutxi erabilia. 330.000 pzta. Deitu larunbata goizetan 630412 Tfnora. Mikel.

▼ Denetarik

• **Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarentzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

• **Beran, negutegiak** jartzeko terrena behar dut. Metroko 700 pzta. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054.

▼ Harremanak

• **Gartzaingo Lourdesi**: zutaz maitemindutanago eta Donezteben ikusteko asmoarekin muxu batez agurtzen zaitut belarri politar, maite zaitut. S.A.S.

• **Arantzako Martaren**tzat: ikusi zintudan egunetik ez dut lorik egiten, nere bihotzeko azukre koxkorrara zara. Espero dut zurekin “enrollatzea”. Ikusi arte. Berroeta mutil bat.

• **Lesakako Amaia** eta Karmelerentzat: inguru honetako neskarik zoragarrienak zarete. Ea Bordatxon ikusten garen. Mila muxu zuen ipurdi eder horietan. Leitzako Pirulo eta Galingo culolindo.

• **Donostiako Aitor** eta Josebarentzat: zuen lagun on bat naiz. Goraintziak. Izaskun.

• **Lesakako Karmeleri**: zu zara nere bizitzako neska eta zu lortu arte ez dut etsiko. Maite zaitut. Ihauterietan ikusiko gara. Mikel.

• **Edozein** adinetako emakumea nahi dut adiskide onak izateko eta biok ados bagaude larrua jotzeko. Berdin zait ezkondua, berezia edo neska. 40 urteko “abstemio” honek isiltasun osoa gordeko du. Larraungo Mikel. 223 apartadoa. Tolosa.

• **Gazteluko Meltxor**, Daniel, Josetxo, Iban eta Santi. Ezagutu zintuzteda netik ezin izan zaituztegu burutik kendu. Arantzako 3 neska. Musu bana.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZIETA IGORRIGURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA



			Araua	▼	●	▼	Noka, du	▼			Nitrogenoa
			Urtu		●		Eguraldia				
▶				▼			▼			▼	
			Esneki mota	▶							●
			Ezkontide								
▶									500	▶	▼
									Titulu ingelesa		
●	▼		Lehenengo biak VI. hilabetea	▶			Hagitz	▶	▼		
Akidura			Gorotza				Ebakidura				
▶			▼	▼	Odol zurru-patzaile Bizkaieraz. omen	▶	▼				
				▼							
Poltsikoa	▶							Musika nota	▶		
Desertuan, aproposa								Zilarra			
▶								▼	Azkenekoa	▶	
									Ale landare		
Portua	▶				Mintzo era berezi	▶			▼		
Dago					Bidali						
▶											
			Lehen pertsona	▶	▼		Bat	▶	Egile atzizkia (Infin.) Jostatu	▶	
			Batu				Zintzo				
●		Boroa	▶	▼	(Errep.) Nahi Joan zaitez	▶	▼	Pazientzia- ren irudia	▶	▼	
		Zeregina						Joaki da			
▶	▼			▼				▼			
									Bigarren bokala	▶	
									Bete		
Soro	▶						(Infin.) Osatu Musika nota	▶	▼		Nor pluralean
●							▼				▼
▶											
Arazoa	▶							IKA-koen lagunak (je, je...)	▶		

● Bidasoako tren tikiak iragaiten zuen hainbat herri eta leku

AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak



Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE

**ALMACENES
ETXANIZ, S.A.**



Lesakako Iturria anaiak



**Irunen, zure bainurako behar dituzun osagarri guziak:
griferiak, manparak, mobleak, gres eta zeramikak**

Juan Arana, 3 - Tfnoa: (943) 61 17 67

IRUN